

María Martín Torres

Paleoantropologoa



“Gustatuko litzaidake aurkitzea ez garela planetako giza espezie bakarra”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Duela gutxi izendatu dute María Martín Torres (Ourense, 1974) CENIEH Espainiako Giza Eboluzioaren Ikerketa Zentroko zuzendari. Ez zaio erraza izan, beraz, gure galderei erantzuteko tarte bat hartzea. Hala ere, ez da ezezkoa emateko gai izan: beti erakutsi du ikerketari adinako garrantzia ematen diola ikertutakoaren berri emateari. Haren erantzunak irakurrita, nabarmena da gure espeziearen iragana ezagutzeak liluratzen duela, baina baita orainak ere.

Zerk harritu, asaldatu edo txunditu zaitu gehien, lanean hasi zinenetik?

Gure iraganaren berreraikuntzan Asiak orain arte uste genuena baino askoz ere rol garrantzitsua goa izan duela; hori jakiteak txunditu egin nau. Nik ikasitako paleoantropologiak Afrikan zuen fokua, gizateriaren sehaskatzat genuen; Asia, berriz, alboko eszenatoki modura agertzen zen, gure jatorriaren argumentu nagusiarekin loturarik ez zuten bigarren mailako istorioak gertatu ziren leku gisa. Lehen ustekabea izan zen jakitea lehen europarrek, gaurdaino Atapuercako aztarnategian dokumentatuak, jatorri asiarra izan zezaketela, afrikarra izan beharrean.

Aurkikuntza honen atzetik, azken bi milioi urtetako giza eboluzioaren interpretazioan paradigma aldatzea ekarri duten beste batzuk etorri dira, esaterako, denisovarren aurkikuntza, Siberian aurkitutako populazio hori, [zeintzuek badugun DNA baina ez dugun fosilik](#). Edo "Afrikatik kanpo" ereduak aurreikusten zuen baino [askoz lehenagoko gizaki modernoak topatu izana](#), adibidez, Daoxianen, Txinan, edo, [duela gutxi argitaratutako Misliyakoak, Israelen](#); edo *H. sapiens* eta *H. neanderthalensis* gizakiak [hibridatu egin zirela](#), seguru asko Eurasian.

Zer iraultzaren edo aurkikuntzaren lekuko izan nahiko zenuke zure ibilbidean?

Haietako bat ia zientzia-fikzioko amets bat da: gustatuko litzaidake aurkitzea ez garela planetako giza espezie bakarra, lekuren batean oraindik badagoela, bizirik, desagertutat jotzen genuen hominidoren bat. Ezinezkoa dirudi, baina gertatzeko zorian egon zen *Homo floresiensis*-en fosilak aurkitu zituztenean!

Ikuspegi zientifikotik, neandertal bat, adibidez, aurrez aurre eta bizirik ikusteak ikaragarritzko balioa izango luke. Beti pentsatzen dut badaudela xehe-tasun batzuk, portaera edo jarrerarekin lotuak, oso zailak direnak ondorioztatzea fosilen azterketatik, eta agian horrek lagunduko liguke ulertzen [zergatik espezie adimentsu bat, neandertala, desagertu zen](#). Askoz ere gehiago jakingo genuke, iraganaz ez ezik, baita orainaz eta gutaz ere. Ez nago ziur, dena den, gure espezieaz eta beste espezieekin izango genukeen harremanaz jakingo genukeena ona izango litzatekeenik ezinbestean, kontuan izanda nola tratatzen dugun elkar.

Errealistagoa izanda, Dolina Handiaren indusketa zabal baten lekuko izatea gustatuko litzaidake. [Badakigu han kanibalismoa gertatu zela](#), 1990eko hamarkadan egindako zundaketa bati esker, eta *Homo antecessor* gizakiaren ehunka fosil aurkitzeko itxaropena dugu. ●